01 09

PARTZELAK BILTZEA

Hirurogei eta hirurogeita hamarreko hamarkadetan partzelak biltzeko prozesu bizia garatu zen. Euskal Herrian, aipatutako prozesuak Arabari eragin zion bereziki, Lurralde honetako Aldundiaren kudeaketapean. 1956/57ko ortoargazkian, esate baterako, Uribarri-Arrazua (Vitoria-Gasteiz) inguruan partzelak aldatu gabe ikus daitezke, eta 2016ko ortoargazkian, berriz, partzelak nabarmen aldatu direla ikusten da, oraingo honetan askoz handiagoak direla. Horrez gain, ikus daiteke bide zuzen berriak agertu direla eta bide tradizionalen sarea desagertu egin dela.

1956/57ko argazkian, halaber, ikus daiteke lasto-zamen antolaketa bitxia, partzelen barruan. Aldi honetan, garia jasotzeko makinak, fardo-makinak eta ekoizpena hobetu zuten eta lanak erraztu zituzten bestelako nekazaritza makinak agertzen hasi ziren.



Ortoargazkia 1956-57, hegaldi amerikarra, B segida. Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco, geoEuskadi. Geografia Erakunde Nazionala.

UTM 30N ETRS89 // X: 533748.6347 // Y: 4748216.8330 // Z: 530 m. Ikusi zamen edo fardelen lerrokadurak partzela ugaritan.



Ortoargazkia 2015. Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco, geoEuskadi.